EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Komunikaziorako uzendaritza

PRESIDENCIA
Dirección de Comunicación

# GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

# CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailak 23**

**Vitoria-Gasteiz, 23 de febrero de 2021**

Navarra, 2 – 01007 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 017 972 – e-mail: prentsa@ej-gv.es

**Lehendakaritza**

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAK OINARRIAK EZARRI DITU BERRIKUNTZAN AURRERATUEN DAUDEN EUROPAKO ESKUALDEEN ARTEAN KOKATZEKO**

- **Gobernu Kontseiluak 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plan berria onartu du**
- **Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin konprometitutako eta Europarekin lerrokatutako plana**
- **Lau zutabetan oinarritutako plana: bikaintasun zientifikoa, lidergo teknologiko-industriala, berrikuntza irekia eta talentua; hiru erronka nagusiri ekiten diena**
- **Espezializazio adimendunaren estrategian sakontzen da eta Zeharkako Ekimen Traktoreak sortzen dira**
- **18.600 milioi euro inbertituko dira 10 urtean, I+G+b-a babesteko urteko aurrekontuak % 6 handitzeko Eusko Jaurlaritzaren konpromisoarekin**

Gobernu Kontseiluak Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana (ZTBP 2030) onartu du gaur. Planaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoa berrikuntzan aurreratuen dauden Europako eskualdeen artean kokatzea, bizi-maila eta enpleguaren kalitate handiarekin. XII. legegintzaldian onartutako Gobernuaren lehen plan estrategikoa da.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluak —Euskal Autonomia Erkidegoko zientzia, teknologia eta berrikuntzako politikaren orientazio estrategikoko, partaidetzako, aholkularitzako eta sustapeneko organo nagusiak— plan berriaren edukien aldeko txostena eman zuen joan den otsailaren 16an.

ZTBP 2030 Planak finkatu egiten du Euskal Autonomia Erkidegoak ikerketaren eta berrikuntzaren alde egiten duen apustu estrategikoa. Zientzia, teknologia eta berrikuntza sustatzeko epe luzerako apustua, Euskadi digital, berde eta inklusibo baterako trantsizioa bizkortzeko palanka gisa. Erakunde publiko, enpresa, unibertsitate, ikerketa-zentro, zentro teknologiko eta eragile sozioekonomikoek parte hartu dute haren prestaketan, eta 200 erakundetako 300 pertsonak baino gehiagok lagundu dute.

**Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin konprometitutako eta Europarekin lerrokatutako plana.**

Plan hau Euskadi Basque Country 2030 Agendan sartuta dago. Hain zuzen, Agendak jaso egiten du Nazio Batuen garapen jasangarrirako helburuekin eta “giza garapen jasangarrirako” estrategiarekin herrialdeak duen konpromisoa. Eta nazioarteko eta tokiko hainbat erreferentziarekin lerrokatzen da: Europa Horizontea Esparru Programa, Europa Digitala Programa, Europako Itun Berdea,

Next Generation EU Programa eta Euskal Autonomia Erkidegoan Ekonomia Suspertu eta Enplegua Sustatzeko 2020-2024 Programa.

**Lau zutabetan oinarritutako plana: bikaintasun zientifikoa, lidergo teknologiko-industriala, berrikuntza irekia eta talentua; hiru erronka nagusiri ekiten diena.**

ZTBP 2030 planak zutabe estrategiko gisa ezartzen ditu bikaintasun zientifikoa, lidergo teknologiko-industriala eta berrikuntza irekia, baita talentua ere, beharrezko erdigune nagusi gisa. Lau elementu horiek ezinbestekoak dira eta batera eta modu orekatuan lagundu behar dute ikerketaren emaitzak emaitza sozial eta ekonomiko bihur daitezen.

Planak hiru erronka nagusi ditu: I+Gko inbertsioak handitzea, batez ere enpresa-sektorean; enpresa txiki eta ertainetan berrikuntza bultzatzea; eta ikertzaileen artean emakumearen presentzia sustatzea. Erronka horiek ebazten laguntzeko, 2030ean Euskal Autonomia Erkidegoan lortu beharreko zenbait helburu eta xede zehaztu dira. Horien artean, aipatzekoak dira honako hauek:

- Enpleguaren % 19 ezagutzan intentsiboa izango da.
- Argitalpen zientifikoen % 22 nazioartean gehien aipatutako % 10aren barruan egongo dira.
- Esportazioen % 58 goi-mailako eta goi-ertain mailako teknologiako produktuena izango dira.
- Enpresen fakturazioaren % 20 produktu berriena izango da.
- Enpresen % 60k euren produktuetan edo negozio-prozesuetan berrituko dute.
- Euskal Autonomia Erkidegoak parte hartzen duen Europako bost ikerketa-proiektutik bat gidatuko du.
- Ikertzaileen % 35 doktoreak izango dira.
- Ikertzaileen % 40 emakumeak izango dira.

**Espezializazio adimendunaren estrategian sakontzen da eta Zeharkako Ekimen Traktoreak sortzen dira.**

ZTBP 2030 plana ez da iraultza bat, baina bai aurreko planaren bilakaera garrantzitsu bat, espezializazio adimenduneko ‘RIS3 Euskadi’ estrategian sakontzen baita. Horrela, estrategiari trantsizio teknologiko-digital, energetiko-klimatiko eta sozial eta sanitario hirukoitzaren bektorea gehitu zaio, baita zerbitzu aurreratuen eta digitalizazio- eta komunikazio-teknologien enpresak ere. Horrek berekin ekarri du hiru lehentasun estrategikoak berriro zehaztea: 1) Industria adimenduna, 2) Energia garbiagoak eta 3) Osasun pertsonalizatua; baita lau aukera-esparruak ere: 4) Elikadura osasungarria, 5) Ekoberrikuntza, 6) Hiri jasangarriak eta 7) Euskadi sortzailea.

Berrikuntza gisa, “Zeharkako Ekimen Traktoreak” kontzeptua ezarri da. Horrek RIS3 arloen arteko lankidetza sustatuko du esparru estrategiko zehatzetan. Esparru horiek, hasiera batean, honela zehaztu dira: zahartze osasungarria, mugikortasun elektrikoa eta ekonomia zirkularra. Helburua da estrategia komunak ezartzea enpresen, unibertsitateen, teknologia- eta ikerketa-zentroen,

administrazio publikoen eta beste eragile batzuen artean, ondo zehaztutako helburuak dituzten proiektu traktoreak identifikatzeko, horien emaitzak gizarteak ikusi ahal izan ditzan.

'Oinarrizko teknologien' mapa bat ere zehazten da. Teknologia horiek funtsezkoak izango dira ezarritako helburuak eta xedeak lortzeko. Teknologia horiek berrikuntza disruptiboak eragiteko ahalmena dute, eta horiek menderatzeak lagundu egingo du euskal enpresak balio-kate globaletan kokatzen.

**18.600 milioi euro inbertituko dira datozen 10 urteetan, I+G+b-a babesteko urteko aurrekontuak % 6 handitzeko Eusko Jaurlaritzaren konpromisoarekin.**

Plan berriaren agertoki ekonomikoek ikerketa eta garapenerako 18.600 milioi eurotik gorako inbertsioa aurreikusten dute 2021-2030 aldian, kontuan hartuta finantzaketa pribatua, finantzaketa publikoa eta nazioarteko funtsetatik datorrena.

Eusko Jaurlaritzak estrategikotzat jotzen du plan berri hau Euskal Autonomia Erkidegoaren etorkizunerako, eta zeregin traktorea beteko du ezarpen-aldi osoan, inbertsioa hazteko ahalegina gidatuta. Horretarako, I+G+b-a babesteko urteko aurrekontuak % 6 handitzeko konpromisoa hartzen du. Horren ondorioz, guztira 6.000 milioi eurotik gorako inbertsioa egingo da planak iraungo duen hamar urteetan.

**Lehendakaritza**

## JAURLARITZAK ZENBAIT SAILEN EGITURA BERRIA ONARTU DU

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu ditu honako sail hauen egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duten dekretuak: **Ekonomiaren Garapena, Iraunkortasuna eta Ingurumena; Ekonomia eta Ogasuna; Hezkuntza**; eta **Kultura eta Hizkuntza Politika.** Dekretu horiek onartuta, Jaurlaritzak legegintzaldi honetarako bere egitura berria osatzen ari da. Hain zuzen ere, Osasun Sailari dagokion egitura baino ez dago onartzeko.

Gaur onartutako dekretuak lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretutik eratortzen dira. Dekretu horren bidez, sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak zehazten dira.

**Ekonomia eta Ogasuna**

**2021ERAKO ZORPETZE-ERAGIKETAK (GEHIENEZ ERE 2.552 MILIOI EUROKO ZENBATEKOA IZANGO DUTENAK) EGITEKO BAIMENA**

Gobernu Kontseiluak zor publikoaren jaulkipen bat edo batzuk egitea erabaki du, eta gehienez ere bi mila bostehun eta berrogeita hamabi milioi berrogeita bost mila zortziehun eta hamazazpi (2.552.045.817) euroko zenbatekoa izango duten mailegu-eragiketak ituntzea baimendu du, Euskal Autonomia Erkidegoko 2021eko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen Legea aldatzen duen Legearen artikulu bakarrari jarraikiz.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2021eko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen Legeak baimena ematen dio Eusko Jaurlaritzari zorpetze-eragiketak egiteko. Horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak formalizatutako zorpetzea handitu ahal izango da, honako muga honekin: ekitaldi-amaierako saldoa ez da izango ekitaldiaren hasierako saldoa baino 1.784.314.641 euro handiagoa. Beraz, 2020. urtearen amaieran dauden zorpetze-eragiketak eta 2021eko ekitaldian egin beharreko amortizazioak kontuan hartuta eta aurreko lege-muga betez, ekitaldi honetan formalizatu beharreko zorpetzearen gehieneko zenbatekoa 2.552.045.817 euro izango da.

Nolanahi ere, ekitaldian formalizatutako gehieneko zenbatekoa irailaren 30eko Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan xedatutakoari jarraikiz Euskal Autonomia Erkidegoko 2021. urterako adostutako zor publikoaren erreferentzia-tasei atxikiko zaie.

Zorpetze-eragiketek honako ezaugarri hauek izango dituzte: a) gehieneko zenbatekoa, guztira: 2.552.045.817 euro, b) interes-tasa: finkoa edo aldakorra, eta epea: 50 urte gehienez. Zor publikoaren jaulkipenen bidez edota edozein mailegu-/kreditu-eragiketaren bidez egin ahal izango dira.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak, Agindu bidez, adostutako eta baimendutako zorpetze-eragiketak egiteko tresnak eta modalitateak finkatuko ditu, eta eragiketen finantza-baldintzak eta Dekretu honek bere aurreikuspenen barruan adierazi gabeko gainerako ezaugarriak zehaztuko ditu. Zor publikoa baloreen bidez jaulkitzen bada, Agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

Dekretua onartu eta argitaratu ondoren, ekitaldia osatzeko egin beharreko eragiketen negoziazioa eta instrumentazioa hasiko da.

**Ekonomia eta Ogasuna**

## EUSKO JAURLARITZAK 1.200 MILIOI EUROTAN HANDITU AHAL IZANGO DITU BERE KREDITU-LERROAK

Gobernu Kontseiluak Jaurlaritzaren kreditu-lerroak 1.200 milioi eurotan handitzeko baimena eman du gaur, 2021. urteari behar bezala aurre egiteko diruzaintza-maila egokiak izateko eta, era horretan, COVID-19aren krisiak eragindako gastuari eta ekarpenen murrizketari lotutako premia gehigarri guztiei erantzuteko.

COVID-19ak sortutako egoeraren egungo testuinguruan, Administrazio Orokorraren eta, bereziki, Diruzaintza Nagusiaren lehentasunetako bat Administrazio horren ordainketa-premiei behar bezala erantzutea da. Egoera egonkortzen den arte, egokitzat hartzen dugu epe laburreko kreditu-eragiketak baimentzea, urtearen barruan formalizatzen direnean Diruzaintza Nagusiaren ordainketa-premiei erantzun ahal izateko.

Epea urtebetekoa izango da, eta 2022ko otsailean amaituko da.

**Kultura eta Hizkuntza Politika**

**GOBERNU KONTSEILUAK 445.000 EUROKO DIRU LAGUNTZA PROGRAMA ONARTU DU ARTE PLASTIKOEN ETA IKUSIZKOEN EREMUA BULTZATZEKO**

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailak 445.000 euro bideratuko ditu 2021ean arte plastikoen eta ikusizkoen eremuan jarduerak sustatzeko eta garatzeko. Gobernu Kontseiluak gaur onartutako deialdiak diruz laguntzeko hiru modalitate hauek zehazten ditu:

1. **Sustapen-zabalkundearen modalitatea: 55.000 euro** bideratuko dira arlo honetara eta bi motatako ekimenak lagunduko dira:

    - Euskal Herrian bizi diren egileen lanak erakutsi edo zabaltzeko arte zentroetan egiten diren arte garaikideko erakusketak edo gertakizunak antolatzea eta/edo beraietan parte hartzea (jaialdiak, erakusketak, lehiaketak,...).
    - Euskadiko Autonomia Erkidegoan egiten diren arte garaikidearen gaineko sentsibilizazio-ekimenak laguntzea (batzarrak, jardunaldiak, kongresuak, lantegiak, hitzaldiak...).

2. **Argitalpen modalitatea**: **121.000 euro** bideratuko dira euskarri desberdinak erabiliz egindako publikazioak egitera, beraien xedea Euskal Herriko arte garaikidea zabaltzea eta bertako artistak eta beraien lana sustatzea bada.

3. **Sorkuntza-ekoizpenaren modalitatea**: arte plastiko eta ikusizkoen sorkuntza ekoizpenaren eremuan proiektuak egiteko, arte lanak ekoizteko eta ikertzeko **269.000 euroko** laguntza emango da.

Interesa dutenek martxoaren 13tik aurrera aurkeztu ahal izango dituzte eskariak.

2020. urtean arte plastikoen eta ikusizkoen eremua bultzatzeko guztira 60 proiektu lagundu ziren: sustapen-zabalkundearen modalitateko 7 proiektu, argitalpenen modalitateko 13 eta sorkuntza-ekoizpeneko 40.

**Kultura eta Hizkuntza Politika**

## EUSKO JAURLARITZAK 200.000 EURO BIDERATUKO DITU KULTUR ARLOKO IKUSLEGOAK GARATZEKO, DIBERTSIFIKATZEKO ETA SENDOTZEKO

Eusko Jaurlaritzak gaurko Gobernu Kontseiluan 200.000 euroko diru partida onartu du 2021. urtean Euskadin kultura arloko ikuslegoak garatzeko proiektu eta jarduera bereziak eta berariazkoak gauzatzeko. Kultura eta Hizkuntza Politika sailak kultur jarduera eta ekitaldietako publikoa areagotu, dibertsifikatu eta fidelizatu nahi du deialdi honekin.

Hiru motatako jarduera edo proiektuak lagunduko dira:

1. **Publikoak dibertsifikatzekoak**: hezkuntza, psikologia edo gizarte-inguruko trabak gainditzera bideratutako esku-hartzeen beharra duten publikoari zuzenduak.
2. **Publikoak hedatzekoak**: interesa erakusten duten publikoak izanda ere, kultur jardueretan parte hartzen ez duten horiek erakartzeko eta haien eskura jartzeko proiektu eta jarduerak.
3. **Parte hartzea areagotzekoak**: kultur jardueretan parte hartzen duten publikoak gero eta fidelagoak izan daitezen, partaidetza maila eta inplikazio maila handiago lortzera bideratutako proiektu eta jarduerak.

Proiektuak Euskal Autonomia Erkidegoan garatu beharko dira 2021eko urtarrilaren 1etatik 2022ko abenduaren31ra bitartean. Hala ere, proiektuak 2021ean hasitakoak izan beharko dira. Gainera, diruz lagunduko diren ekintza eta jarduerak herritarrentzat irekiak izan beharko dira. Aurreko deialdia ere, bi urtekoa izan zen eta guztira zortzi proiektu babestu ziran.

Kultur arloko ikuslegoak garatzeko, dibertsifikatzeko eta sendotzeko eskariak aurkezteko epea hilabetekoa izango da martxoaren 10etik aurrera.

**Kultura eta Hizkuntza Politika**

## EUSKO JAURLARITZAK 105.000 EURO BIDERATUKO DITU IRUDI-SORKUNTZA BULTZATZERA

Gobernu Kontseiluak 2021. ekitaldian zehar komikiak, nobela grafikoak edo irudidun liburuak sortzeko diru-laguntzak onartu ditu gaur. Azken aldian gorakada handia izan du irudi-sorkuntzaren sektoreak eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailak sektorea bultzatzeko helburuz ematen ditu laguntza hauek. Aldi berean Euskadin nobela grafikoen eta irudidun liburuen argitalpena dinamizatzeko helburua ere badu.

Eusko Jaurlaritzak guztira 105.000 euro erabiliko ditu irudi-sorkuntzako zazpi proiektu diruz laguntzeko:

- 15.000 euroko lau laguntza emango dira komiki edo nobela grafiko bat argitaratzea helburu duten ilustrazio proiektuentzat.
- 15.000 euroko beste hiru laguntza irudidun album edo liburu bat argitaratzea helburu duten ilustrazio proiektuentzat.

Bi kasuetan diru-laguntzetako bat 30 urtetik beherako pertsona batentzat izango da eta beste bat, gutxienez, emakume batentzat.

Irudi-sorkuntzara bideratutako laguntzak eskatu nahi dituztenek hilabeteko epea izango dute martxoaren 9tik aurrera. Ondoren balorazio batzorde batek aztertuko ditu aurkeztutako lanak. Onuradunek 12 hilabeteko epean aurkeztu beharko dituzte beraien lanak eta beste sei hilabete izango dituzte liburua argitaratzeko.

**Presidencia**

# EUSKADI SIENTA LAS BASES PARA SITUARSE ENTRE LAS REGIONES EUROPEAS MÁS AVANZADAS EN INNOVACIÓN

- **El Consejo de Gobierno aprueba el nuevo Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación 2030**
- **Un Plan comprometido con los Objetivos de Desarrollo Sostenible de Naciones Unidas y alineado con Europa**
- **Un Plan basado en cuatro pilares: excelencia científica, liderazgo tecnológico-industrial, innovación abierta y talento y que afronta tres grandes retos**
- **Se profundiza en la estrategia de especialización inteligente y se crean las Iniciativas Tractoras Transversales**
- **Se invertirán 18.600 millones de euros en 10 años, con el compromiso del Gobierno Vasco de aumentar un 6% sus presupuestos anuales de apoyo a la I+D+i**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación Euskadi 2030 (PCTI 2030), que persigue situar a Euskadi entre las regiones europeas más avanzadas en innovación, con un elevado nivel de vida y calidad del empleo. Se trata del primer Plan Estratégico del Gobierno aprobado en la XII Legislatura.

El Consejo Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación, órgano principal de orientación estratégica, participación, asesoramiento y promoción de la política de ciencia, tecnología e innovación en Euskadi, había informado favorablemente sobre los contenidos del nuevo Plan de forma previa, el pasado 16 de febrero.

El PCTI 2030 consolida la apuesta estratégica de Euskadi por la Investigación y la Innovación. Una apuesta de largo plazo para impulsar la ciencia, la tecnología y la innovación, como palancas que aceleren la transición hacia una Euskadi digital, verde e inclusiva. En su elaboración han participado instituciones públicas, empresas, universidades, centros de investigación, centros tecnológicos y agentes socioeconómicos, colaborando más de 300 personas de 200 entidades.

## Un Plan comprometido con los Objetivos de Desarrollo Sostenible de Naciones Unidas y alineado con Europa.

Este Plan forma parte de la Agenda Euskadi Basque Country 2030, que recoge el compromiso del país con los Objetivos de Desarrollo Sostenible de Naciones Unidas, y de la estrategia de “Desarrollo Humano Sostenible”. Y se alinea con diferentes referencias internacionales y locales: el Programa Marco Horizonte Europa, el Programa Europa Digital, el Pacto Verde Europeo, el Programa Next Generation EU y el Programa Berpiztu para la Reactivación Económica y el Empleo en Euskadi 2020-2024.

**Un Plan basado en cuatro pilares: excelencia científica, liderazgo tecnológico-industrial, innovación abierta y talento y que afronta 3 grandes retos.**

El PCTI 2030 establece como pilares estratégicos la excelencia científica, el liderazgo tecnológico industrial y la innovación abierta, además del talento como núcleo central necesario. Estos cuatro elementos son imprescindibles y deben contribuir de forma conjunta y equilibrada a que los resultados de la investigación se transformen en resultados sociales y económicos.

El Plan afronta tres grandes retos: aumentar las inversiones en I+D, especialmente en el sector empresarial; impulsar la innovación en las pequeñas y medianas empresas y fomentar la presencia de la mujer entre los investigadores. Para contribuir a la resolución de estos retos, se han definido una serie de objetivos y metas a alcanzar en 2030 en Euskadi, entre los que cabe destacar:

- El 19% del empleo será intensivo en conocimiento;
- El 22% de las publicaciones científicas estarán en el top 10% más citadas internacionalmente;
- El 58 de las exportaciones será de productos de alta y media-alta tecnología;
- El 20% de la facturación de las empresas será por nuevos productos;
- El 60% de las empresas innovarán en sus productos o procesos de negocio;
- Euskadi liderará uno de cada cinco proyectos europeos de investigación en los que participe;
- El 35% del personal investigador será doctor;
- El 40% del personal investigador será mujer.

**Se profundiza en la estrategia de especialización inteligente y se crean las Iniciativas Tractoras Transversales.**

El PCTI 2030 no es una revolución, pero sí una evolución importante del Plan anterior, al profundizarse en la estrategia de especialización inteligente ‘RIS3 Euskadi’. De esta forma, a la estrategia se incorpora el vector de la triple transición tecnológica-digital, energética-climática y social y sanitaria, así como las empresas de servicios avanzados y de tecnologías de digitalización y comunicación. Esto ha llevado a la redefinición de las tres prioridades estratégicas: 1) Industria Inteligente; 2) Energías más limpias y 3) Salud Personalizada, así como de los cuatro territorios de oportunidad: 4) Alimentación Saludable; 5) Ecoinnovación; 6) Ciudades Sostenibles y 7) Euskadi Creativa.

Se establece como novedad el concepto de ‘Iniciativas Tractoras Transversales’, que potenciará el trabajo colaborativo entre las áreas RIS3 en ámbitos estratégicos concretos, que inicialmente se han definido como el envejecimiento saludable, la movilidad eléctrica y la economía circular. Se trata de establecer estrategias comunes entre empresas, universidades, centros tecnológicos y de investigación, administraciones públicas y otros agentes, orientado a identificar

proyectos tractores con objetivos bien definidos, cuyos resultados puedan ser visualizados por la sociedad.

Se define también un mapa de 'Tecnologías base' que serán fundamentales para conseguir los objetivos y metas marcados. Se trata de tecnologías que cuentan con potencial para desencadenar innovaciones disruptivas, y cuyo dominio contribuirá a posicionar a las empresas vascas en las cadenas de valor globales.

**Se invertirán 18.600 millones de euros en los próximos 10 años, con el compromiso del Gobierno Vasco de aumentar un 6% sus presupuestos anuales de apoyo a la I+D+i.**

Los escenarios económicos del nuevo plan contemplan una inversión total en investigación y desarrollo superior a 18.600 millones de euros en el periodo 2021-2030, contando la financiación privada, la financiación pública y la procedente de fondos internacionales.

El Gobierno Vasco considera estratégico para el futuro de Euskadi este nuevo plan y ejercerá un papel tractor a lo largo de todo su periodo de implantación, liderando el esfuerzo de crecimiento de la inversión. Para ello adquiere el compromiso de aumentar un 6% sus presupuestos anuales de apoyo a la I+D+i. Ello implicará una inversión total superior a los 6.000 millones de euros en los diez años de duración del plan.

**Presidencia**

## EL GOBIERNO APRUEBA LA NUEVA ESTRUCTURA DE VARIOS DEPARTAMENTOS

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy los decretos por los que se establece la estructura orgánica y funcional de los departamentos de **Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente; Economía y Hacienda; Educación; y Cultura y Política Lingüística**. Con la aprobación de estos decretos el Gobierno va completando su nueva estructura para la presente Legislatura; únicamente resta por aprobar la correspondiente al Departamento de Salud.

Los decretos aprobados hoy derivan del Decreto 18/2020 de 6 de septiembre, del Lehendakari, por el que se determinan las funciones y áreas de actuación de cada uno de los departamentos.

**Economía y Hacienda**

## AUTORIZACIÓN PARA LA REALIZACIÓN DE OPERACIONES DE ENDEUDAMIENTO PARA 2021 POR UN IMPORTE MÁXIMO DE 2.552 MILLONES DE EUROS

El Consejo de Gobierno ha acordado la realización de una o varias emisiones de Deuda Pública, y autoriza la concertación de operaciones de préstamo por un importe máximo equivalente a dos mil quinientos cincuenta y dos millones cuarenta y cinco mil ochocientos diecisiete (2.552.045.817) euros de conformidad con el artículo único de la Ley por la que se modifica la Ley por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2021.

La Ley por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2021, autoriza al Gobierno Vasco a realizar operaciones de endeudamiento, de forma que el endeudamiento formalizado por la Administración de la Comunidad Autónoma, podrá incrementarse con la limitación de que el saldo al cierre del ejercicio no supere el correspondiente saldo al comienzo del mismo en más de 1.784.314.641 euros. Por tanto, considerando las operaciones de endeudamiento existentes a cierre del año 2020 y las amortizaciones a realizar durante el ejercicio 2021, el importe máximo de endeudamiento a formalizar en el presente ejercicio, cumpliendo la restricción legal anterior, se sitúa en 2.552.045.817 euros.

En todo caso, el importe máximo formalizado durante el ejercicio se acogerá a las tasas de referencia de deuda pública para el año 2021 de la Comunidad Autónoma del País Vasco acordado en virtud de lo dispuesto en la Comisión Mixta del Concierto Económico de 30 de septiembre.

Las operaciones de endeudamiento tendrán las siguientes características: a) importe máximo total: 2.552.045.817 euros, b) tipo de interés: fijo o variable y plazo: hasta un máximo de 50 años. Se podrán realizar a través de emisiones de Deuda Pública o mediante cualquier operación de préstamo crédito.

El Consejero de Economía y Hacienda, mediante Orden, determinará los instrumentos y modalidades concretas para realizar las operaciones de endeudamiento acordadas y autorizadas, así como concretar sus condiciones financieras y demás características de las operaciones no señaladas por el presente Decreto, dentro de las previsiones del mismo. En el caso de emisión de deuda pública en forma de valores, dicha Orden deberá ser publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

Una vez aprobado y publicado el Decreto se iniciará la negociación e instrumentación de las distintas operaciones a realizar para completar el ejercicio.

**Economía y Hacienda**

## EL GOBIERNO VASCO PODRÁ AMPLIAR SUS LÍNEAS DE CRÉDITO EN 1.200 MILLONES DE EUROS

El Consejo de Gobierno ha autorizado hoy la ampliación de las líneas de crédito del ejecutivo en 1.200 millones de euros, de cara a mantener unos niveles de tesorería apropiados a efectos de afrontar el año 2021 de forma correcta y poder atender todas las necesidades adicionales de gasto y reducción de las aportaciones provocadas por la crisis de la COVID 19.

En el contexto actual de la situación generada por el COVID-19, una de las prioridades de la Administración General y, en especial, de la Tesorería General es atender puntualmente las necesidades de pago de dicha Administración. Hasta que esta situación no se estabilice, entendemos adecuado, en este momento, autorizar operaciones de crédito a corto plazo cuya formalización a lo largo del año permita atender a las necesidades de pago por parte de la Tesorería General.

El plazo es a un año, con vencimiento en febrero de 2022.

**Cultura y Política Lingüística**

## EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA UN PROGRAMA DE SUBVENCIÓN DE 445.000 EUROS PARA IMPULSAR EL SECTOR DE LAS ARTES PLÁSTICAS Y VISUALES

El Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco destinará 445.000 euros en 2021 a la promoción y desarrollo de actividades en el ámbito de las artes plásticas y visuales. La convocatoria aprobada hoy por el Consejo de Gobierno establece tres modalidades de subvención:

1. **Modalidad de promoción-difusión**: se destinarán **55.000 euros** a este ámbito y se apoyarán dos tipos de iniciativas.
    - Organización y/o participación en eventos o exposiciones de arte contemporáneo realizados en centros de arte para la exhibición o difusión de obras de autores residentes en el País Vasco (festivales, exposiciones, certámenes, …).
    - Apoyo a iniciativas de sensibilización sobre el arte contemporáneo que se realicen en la Comunidad Autónoma de Euskadi (congresos, jornadas, congresos, talleres, conferencias...).

2. **Modalidad de publicaciones**: se destinarán **121.000 euros** para la realización de publicaciones en distintos soportes cuyo objeto sea la difusión del arte contemporáneo que se desarrolla en el País Vasco, así como la promoción de los y las artistas y su obra.

3. **Modalidad de creación-producción**: se destinarán **269.000 euros** a la realización de proyectos en el campo de la creación-producción plástica y visual, producción de obra artística e investigación.

Las personas interesadas deberán presentar sus solicitudes en el plazo de un mes a partir del 13 de marzo.

En el año 2020 se apoyaron un total de 60 proyectos para impulsar el ámbito de las artes plásticas y visuales: en la modalidad de promoción-difusión se apoyaron 7 proyectos, en la modalidad de publicaciones 13 y en la de creación-producción 40.

**Cultura y Política Lingüística**

## EL GOBIERNO VASCO DESTINARÁ 200.000 EUROS PARA EL DESARROLLO, DIVERSIFICACIÓN Y CONSOLIDACIÓN DEL PÚBLICO CULTURAL

El Gobierno Vasco ha aprobado en el Consejo de Gobierno de hoy una partida de 200.000 euros para la realización de proyectos y actividades específicas para el desarrollo de públicos culturales en Euskadi durante el año 2021. El departamento de Cultura y Política Lingüística pretende con esta convocatoria incrementar, diversificar y fidelizar el público de actividades y eventos culturales. Se subvencionarán tres tipos de actividades o proyectos:

1. **Diversificación de públicos**: proyectos y/o actividades que requieren intervenciones dirigidas a superar las barreras educativas, psicológicas o del entorno social.
2. **Ampliación de públicos**: proyectos y/o actividades dirigidas a públicos interesados en la cultura pero que no participan en actividades culturales y que requieren de intervenciones para atraer y facilitar el acceso a las actividades culturales.
3. **Profundizar en la participación**: proyectos y/o actividades dirigidas a la fidelización de los públicos culturales ya existentes para que incremente tanto su nivel de participación como su nivel de implicación.

Los proyectos deberán desarrollarse en la Comunidad Autónoma del País Vasco entre el 1 de enero de 2021 y el 31 de diciembre de 2022. No obstante, los proyectos deberán ser iniciados en 2021. Además, las acciones y actividades a subvencionar deberán ser abiertas a la ciudadanía. La convocatoria anterior también fue bianual y se subvencionaron un total de ocho proyectos.

El plazo de presentación de solicitudes para el desarrollo, diversificación y consolidación del público cultural será de un mes a partir del 10 de marzo.

**Cultura y Política Lingüística**

## EL GOBIERNO VASCO DESTINARÁ 105.000 EUROS A IMPULSAR LA CREACIÓN GRÁFICA

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy las subvenciones para la creación de cómics, novelas gráficas o libros ilustrados a lo largo del ejercicio 2021. El sector de la creación gráfica ha experimentado un fuerte auge en los últimos tiempos y el Departamento de Cultura y Política Lingüística concede estas ayudas con el objetivo de impulsar el sector, así como para dinamizar la publicación de novelas gráficas y libros ilustrados en Euskadi.

El Gobierno Vasco destinará un total de 105.000 euros a subvencionar siete proyectos de creación gráfica:

- Se concederán cuatro ayudas de 15.000 euros cada una para proyectos de ilustración cuyo objetivo sea la publicación de una obra de cómic o novela gráfica.
- Se concederán otras tres ayudas de 15.000 euros cada una para proyectos de ilustración cuyo objetivo sea la publicación de un álbum o libro ilustrado.

En ambos casos una de las subvenciones será para una persona menor de 30 años y otra, al menos, para una mujer.

Las personas interesadas podrán solicitar las ayudas destinadas a la creación gráfica en el plazo de un mes a partir del día 9 de marzo. Posteriormente una comisión de valoración analizará los trabajos presentados. Las personas beneficiarias deberán presentarlos en el plazo de 12 meses y tendrán otros seis meses para publicar el libro.